



EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA PRENTSA OHARRA

*EDBk "Dantzariak 70" eta bere zuzendari berria aurkeztu ditu
Durango Azokaren atarian*



Bilbao, 2025eko abenduaren 2a. Euskal Dantzarien Biltzarrak (EDB) gaur aurkeztu du komunikabideen aurrean *Dantzariak* aldizkariaren 70. zenbakia; 1969an sortu zenetik, euskal dantza tradizionalaren arloko erreferentziazko argitalpena da. Prentsaurrekoan, gainera, aldizkariaren zuzendari berria ere aurkeztu da: **Pablo A. Martín Bosch (Aritz)**, azken hamaika urteetan proiektuaren gidaritzan aritu den **Josu Larrinagaren** lekukoa hartuko duena.

Dantzariak aldizkaria, *Dantzari* argitalpenaren jarraipen gisa sortua, EDBk bultzatu eta **Erredakzio Kontseiluak** garatutako proiektua da, hasieratik euskal kultura tradizionalaren ikerketarekin, dokumentazioarekin eta zabalkundearekin etengabeko konpromisoa izan duena. Bost hamarkada baino gehiagoko ibilbidean, aldizkaria erreferentziazko gune bihurtu da Euskal Herriko dantzen, musikaren eta kultur adierazpideen azterketa eta hedapenerako.

EDBk jakinarazi du, halaber, "*Dantzariak 70*" aste honetan egongo dela eskuragarri **Durangoko Azokan**, eta bertan aurkeztuko duela urte honetan argitaratu den beste lan berria ere: "*Viva La Pepa. Historia de la Jota de Tudela*" (**Juan R. Sainz**).

Proposamen editorial bikoitz honekin, EDBk berresten du Euskal Herriko dantza eta tradizio herrikoien ikerketa, kontserbazioa eta zabalkundea bultzatzeko duen konpromisoa.

Dantzari izateaz harro!!

Euskal Dantzarien Biltzarra 1965ean sortu zen, Euskal Herriko dantza, musika eta ohiturak mantendu, berreskuratu eta zabaltzeko helburuarekin. Diru irabazi asmorik gabeko elkarte soziokulturala da, euskal dantzak sustatu eta babesteko helburua duena.

Kontaktua:
Erika Garcia Burgos,
EDBko koordinatzailea
dantzagune@gmail.com
+34 690 81 25 14

